

EDITORIAL

Azken urteotan euskal mendizale batzuk arrakasta nabarmenak lortu dituzte munduko mendi-talderik garrantzitsuetan. Honi esker gure mendizaletasuna apurka-apurka nazio-arteko alpinismoak duen mailaren parean jartzen ari da. Hala ere, izar loka hauen argiak ezin gaitu itsutu: izan ere, goi mailako ekintza hauek egiten dituenak, oraingoz behintzat, oso talde minoritarioa da. Eta gutxiengo talde honen atzean hor gelditzen da mendizale talde handi hori, Euskal Herriko mendietara mugaturik eta inoiz —asko jota— Auñamendira joaten dena, igonaldirik klasikoenak behin eta berriro egiteko.

Hauxe da, jakina, gure mendizaleetan talderik bereziena eta ohizkoena. Eta alpinismo moeta honetan, zalantzarik ez, poztasun bat aurkitzen duena; baina abangoardiako elite txikiarengandik oso urrun dago. Banatzen dituen zuloa oso handia da. Hala ere, beti egon urrun dago. Banatzen dituen zuloa oso handia da. Hala ere, beti egon da eta gero eta indar gehiago sortzen ari da bi mutur hauen artean kokatzen den beste talde bat. Nortzuk osatzen duten erdiko talde hau? Ba, nazioarteko lehenengo hilerako egitasmoak izan ez arren, beste muturrean daudenak baino egitasmo zabal eta handiagoak dituztenek. Alpeetara-ta, Andeetara-ta, Afrikara-ta joaten dira igonaldi batzuk egitera bide normalak hartuta, edo baita ere urrun joaten dira «trekkings»-ak egitera.

Sailkapen hau ontzat hartzen bada, onartu beharra dago baita ere gure erakunde-ko mendizaletasunak maila honi, hain zuzen ere, laguntza berezi bat eman behar diola. Bere iharduerak helburu eta ahalbideen arteko koherentzia bat eskatzen du. Honek esan nahi du asmo hauek bultzatu eta eragin behar direla, egi bihur daitezela, bere egitea erraz dadin eta gero eta urrunago eta gorago joatea pentsa dadin.

Eta zera lortu behar da, hara doazenez konta dezatela. Gehien batetan, esperientziak oso pozgarriak izaten dira, eta besteek hori ikusten badute, berak ere antzerako igonaldiak egiteko gauza direla pentsa dezakete, eta honela horren zaletasuna zabaltzen hasiko da. Azken batetan zera lortu behar da, mendizale ausartek beti igonaldi berdinak egitearen inertzia hori apur dezatela.

Los relevantes éxitos de algunos montañeros vascos en estos últimos años sobre los escenarios de los macizos más importantes del mundo, han ido sintonizando poco a poco la onda de nuestro montañismo con los ritmos que suenan en el concierto de alpinismo internacional. Sin embargo, la luz de estas estrellas fugaces no debe deslumbrarnos hasta el punto de hacernos olvidar que estas acciones de alto nivel no pasan por el momento de tener por protagonistas a un sector muy minoritario, tras el que queda el gran colectivo de montañeros cuyos horizontes se limitan a los perfiles amables de Euskalherria, con alguna salida todo lo más, a Pirineos, para repetir las ascensiones más clásicas.

Este es, obviamente, el contingente más caracterizado y tradicional de nuestro montañismo. Es la base, que encuentra una satisfacción indudable en ese tipo de alpinismo, y está muy lejos de la reducida élite de vanguardia. El foso que los separa es muy grande. Sin embargo, siempre ha existido y cada vez se configura con más fuerza un sector que ocupa un espacio intermedio entre los dos extremos. Son esos grupos que se plantean unos proyectos más ambiciosos aunque no puedan considerarse de primera fila internacional. Son los que salen a Alpes, a Andes, a Africa, a realizar ascensiones por rutas normales, o se van a lejanos trekkings.

Si se acepta como buena esta clasificación también hay que admitir que es a este nivel al que dirigir una atención especial por parte de nuestro montañismo institucional. Su actividad exige una coherencia entre objetivos y posibilidades, y ello implica que hay que volcarse en apoyar y estimular esas inquietudes para que se conviertan en realizaciones; para que se facilite su ejecución y cada vez se piense en ir más lejos y más alto.

Y hay que conseguir que los que van lo cuenten. La mayor parte de las veces, las experiencias son tremendamente satisfactorias y es fácil que cunda el ejemplo, que otros piensen que ellos también pueden intentar cosas parecidas, en definitiva, que se despierten ilusiones que hagan romper a los audaces con la inercia de las salidas tradicionales.